



PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

Gorlizko eta Plentziako Udalek martxan jarriko dute Euskara Agenda bateratua 2016. urtean

Gorlizko Elizateko Udalak eta Plentziako Uri Udalak askotan antolatu izan dituzte ekintzak elkarren artean, bi herrien arteko hartu-eman eta lotura handia izan baita.

Gorliz eta Plentziako egoera soziolinguistikoa ere oso antzekoa da, eta ugari dira herri batetik bestera doazen herritarrak. Gainera, igotzen doa herritar euskaldunen kopurua, eta bi herrietan euskara eta bere normalizazioa bultzatzeko ekintzak eta egitasmoak antolatzeko eta haietan parte hartzeko prest daudela adierazi digute. Hori ikusita, Gorlizko eta Plentziako Udalek, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin batera, aurrerapauso bat eman nahi dute eta Gorlizko eta Plentziako Euskara Agenda bateratua sortu.

Agenda honen helbururik garrantzitsuen esparru guztietan euskararen erabileraren normalizazioa bermatzea da; eta bide horri hasiera eman, herritar euskaldunen arteko harremanak sendotzeko eta euskaldunon sarea ugaltzeko. Horrez gain, euskarazko kalitatezko eta gure helburuak betetzeko posible diren ekimenak antolatu nahi ditugu.

Horretarako, askotariko ekintzak antolatuko dira bai Gorlizen baita Plentzian ere; eta lau zutabe garrantzitsutan sailkatuko ditugu: soziolinguistika edo hizkuntza, literatura edo sorkuntza, kultura, eta azkenik, historia edo ondarea.

Bestalde, Euskara Agenda horren irudi nagusia izango den irudia edo logoa aukeratzeko lehiaketa abian jarriko dute. Logo edo irudi horrek bi herrien arteko lotura eta euskararekiko lotura ere islatu beharko du.



Logo lehiaketaren, Euskara Agendaren eta lehenbiziko ekintzaren aurkezpena urtarrilaren 29an egingo da, Plentziako Danontzat gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan. Ekitaldiari hasiera emateko, Euskara Agendaren azalpen labur bat egingo da. Ostean, logo lehiaketaren inguruko xehetasunak eman: epeak, baldintzak...; eta amaitzeko, ekitaldi kultural batekin hasiera emango diogu Euskara Agendari: Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaranen *Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez eraikitzen. Euskal Herriaren Historia kantetan*.

Plentziako Uri Udalak eta Gortizko Elizateko Udalak ohar honen zabalkundea egitea eskatzen dizue. Aldez aurretik, zuen arreta eta egingo duzuen zabalkundea eskertu nahi dizuegu.